



Watt gutxiago, kontzientzia gehiago

Aholku erraz batzuei jarraituta, argindarraren ordainagiria merkatuko dute kontsumitzaileek, eta energia-gastuak ingurumenean zer-nolako eragin larria duen jabetzeko ere balioko die

Argindarra % 10 garestitu da urte aldaketarekin, eta ez da izango azkeneko aldia. Ordainagiriak gero eta zerbaki handiagoa erakusten duen honetan, kontsumitzaileek zenbait neurri har ditzakete; sakelak eskertuko du, eta ingurumenak ere bai.

Lehenik eta behin, arau nagusi bat ezarri beharra dago jokabidean, bista-bistakoa dirudien arren, jendea ohartzeko dagoela dirudi eta: energia aurrezteko modurik (eko)logikoena, energiari ez kontsumitzea da, edo, gutxienez, zentzu pixka batekin egitea. Ohikoa izaten da, adibidez, logela batean inor egon ez, eta argiak piztuta edukitzea, edo neguan kamisetarekin eta udan jertsearekin ibiltzea, berogailua eta aire girotua neurritz kanpo erabiltzen direlako.

Etxetresna elektrikoek kontsumitzen dute energiari gehien: argindarretan ordain-tzen dugunaren % 65 ere bai zenbaitetan. Baina guztiek ez dute berdin kontsumitzen. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) emandako datuen arabera, hozkailu eta izozkailuek, adibidez, argindar guztia- ren % 19 kontsumitzen dute. Hori dela eta, garrantzitsua da neurri egokia duen bat erostea, eta energia-eraginkortasun gehien daukanetakoa: A motakoa edo hortik gorakoa (A+, A++..).

Kontsumitzaile batek C motako hozkailua badu, eta haren lekuan A+ motakoa jartzen badu, hilean 3,72 euro aurreztuko ditu argindarretan (44,64 euro urtean). Arropa-garbigailuarekin gauza bera eginez gero, 2 euro; ontzi-garbigailuarekin, 2,42 euro; eta arropalahorgailuarekin, 4,61 euro.

Etxetresnarik eraginkorrenak garestiagoak dira, baina lau urteren buruan amortizatzen da hasierako inbertsioa. Tresna horiek hamar urteko bizia izaten dute, batez beste, eta denbora horretan, etxetresna ez-eraginkor batekin alderatuta, argindar-kontsumo guztia- ren % 74,7 aurrezteko lortzen da tresna eraginkorrekin. Administrazioek Renove planak eta gisakoak eskaintzen dituzte, jendeari diru laguntzak emateko gutxiago gastatzen duten gailuak eros ditzan.

Energia-kontsumoa gutxitzeko, adibidez, hozkailu batek egiten duena, neurri egokia da tresna hori leku fresko eta ongi haizeztatu batean jartzea, haren atzeko alde garbi edukitzea edo izotz-kapa hiru milimetrokoa egin aurretik desizoztea. Ahalik eta gutxienetan irekitzea eta ateetako gomak aldatzea ere bai, ongi ixten ez badira; jaki beroak ez sartzea; elikagaiak hozkailuan desizoztea, haien hotzari etekina ateratzeko; eta hozkailua 3º eta 5º gradu artean edukitzea eta izozkailua -18º eta -15º artean. Horiek dira hozkailu batek energia gutxiago kontsumi dezan funtsezko aholkuak.



ENERGIA-XURGATZAILEAK

Telebista

Hozkailuaren ondotik, telebistak kontsumitzen du energia gehien. Telebista lauak, urtetik urtera gero eta gehiago hedatzen ari diren horiek, banpiro energetiko aseezinak dira: 'stand by' egoeran edo pausaldian daudela, energia xurgatzen dute eguneko 24 orduetan, nahiz eta inortxo ez egon hari begira, eta egiten duten gastu guztia- ren % 15 izatera hel liteke pausaldiko kontsumoa. Horregatik, gainerako gailu elektriko txiki eta handiekin gertatzen den bezala (hirukoiztu egin da horien kontsumoa azken hiru hamarkadetan), aholku batzuei jarraitu behar diete kontsumitzaileek: eraginkorrenak hautatu, 'stand by' egoera saihestu eta itzalita eduki, erabili behar ez direnean.

Ordenagailua

Pantaila itzali behar da, 20 minutu baino gehiago egingo baditugu hura erabili gabe, eta ordenagailu osoa itzaltzea komeni da, baldin eta 2 orduz edo gehiagor ez badugu erabiliko. Teknologia berriak lagungarri izan daitezke argindar gutxiago gastatzeko; kontagailu adimendunek, adibidez, denbora errealean zenbat argindar kontsumitzen den esaten dute. ■■■

■ Etxetresnarik eraginkorrenak garestiagoak dira, baina lau urteren buruan amortizatzen dira

Garbigailua

Gehien kontsumitzen duten tresnen artean, garbigailua dator hurrena. Erabiltzen duen argindarraren % 80-90, ura berotzeko izaten da. Garbigailurik eraginkorrenak erabiltzeaz gain, ur hotzarekin dabilzan programak hautatu behar dira, horietan izaten dira-eta, gainera, egokienak lixiba mota gehientzat. Garrantzitsua da, halaber, garbigailua ahalik eta gehien betetzea arropaz, edo, gutxienez, karga-erdiko programak erabiltzea, zentrifugatu eta arropak eguzkitan lehortzea, lehorgailuak saihesteko, eta horrez gain, urari kaltzioa kentzekoak erabiltzea ere komeni da, eta iragazkia garbi edukitzea. Lehorgailua edukiz gero, hori ere eraginkorren sailekoa izatea komeni da, eta ezinbesteko denean soilik erabiltzea, ahal bezainbat beteta.

Ontzi-garbigailua

Espanian, lau etxetatik batean daukate eta argindar-gastuaren % 2 egiten du, baina platerak eskuz ur beroarekin garbitzea baino merkeagoa da, baldin eta garbigailuentzat eman ditugun aholkuei jarraitzen badiegu.

Sukaldea

Elikagaiak prestatzeko ere, energia dezente behar izaten da (% 11); etxe batzuetan ar-

gindarra erabiltzen dute, eta gas naturala beste zenbaitetan. Kontsumoa gutxitzeko, sua bera baino hondo handiagoa duten ontziak erabili daitezke, eltzei tapa jarri, A motako labeak erabili eta behar denean baino ez ireki horien atea, espres ontzietan prestatu jakiak; plaka elektrikoak dituenak, irakiten hasi baino lehentxeago itzal dezake sua, eta gasa duenak, berriz, sua apaldu behar du ura irakiten hasten denean.

Etxetresna elektriko txikiak

Beroa ematen duten tresna elektriko txikiak (lisaburdina, txigorgailua edo ile-lehorgailua) energia dezente behar izaten dute. Tresna horiek ahalik eta gutxien erabiltzea komeni da, eta ahalik eta etekin gehien ateratzea. Latak irekitzekoak, zukugailuak edo telefonoak, adibidez, badira argindarririk gabe dabilzanak ere. Hala ere, tresna horietako batzuk aski egokiak izan daitezke. Mikrouhin-labe batek, esaterako, ohiko labe batek baino denbora gutxiago behar izaten du, eta energia ere, % 60-70 inguru aurrezten du. Eta bizarra egiteko makina elektrikoak egokiagoak dira erabili eta botatzeko bizar-labanak baino, ur berorik ez delako behar izaten eta hondakinak ere gutxiago sortzen direlako.

Argiztapena eta aire girotua

Argiztapenak eraman ohi du etxe bateko argindar-kontsumoaren laurdena edo bostena, nahiz eta erdia ere izan daitekeen, gauzak gaizki eginez gero. Gastu hori apaltzeko modu ona izaten da argi naturala erabiltzea ahal den guztietan, paretak eta sabaiak kolore argiz margotzea, argiak itzaltzea erabili behar ez direnean, tulipak eta bonbillak garbi edukitzea edo energia aurrezteko sistemak instalatzea.

Kontsumo txikiko bonbillak ere hor daude; ohikoak baino garestiagoak dira, baina % 80raino aurrezten dute energia, eta zortzi aldiz gehiago irauten dute; beraz, erraz amortizatzen da horiek erosteko gastua: 11-15 watteko bonbilla batek, bere iraupenaldian, 68 euro aurreztu ditzake, eta, gainera, tona erdi CO₂ isurtzeari uzten zaio horri esker (gas hori da klima-aldaketan eragin handienetakoa duena).

Berogailu elektrikoak, aldiz, ez dira batere onak, erruz gastatzen baitute argindarra. Baina energia gutxiago xahutzen duten beste sistema batzuk erabilia ere, bero-ponpak eta gisakoak, adibidez, modu arduratsuan egin behar da. Etxebizitza bat 20 °C-tan badago, aski eroso gertatuko da, eta logeletan, berriz, 3 edo 5 gradu gutxiago ere eduki daitezke. Termostatoari gradu bat kentzen diogun bakoitzeko, % 3-5 artean aurrezten dugu ordainagirian. Berogailua ez da zertan piztuta eduki egun guztian, eta are gutxiago gauez: etxea haizeberritu eta leihoak itxi ondotik, aski da ordu gutxi batzuetan jartzea. Aire girotuari dagokionez, berriz, zentzu pixka batekin erabiliz gero, energia asko aurreztu daiteke, eta ingurumenaren gaineko eragina murriztu. Ez da komeni bero gehien egiten duen orduetan erabiltzea, goizeko lehen orduetan baizik; leihoak eta gortinak itxi behar dira, hotzik gal ez dadin, eta sekula ez da utzi behar sleep edo 'stand by' egoeran (pausaldian).

Norabide edo orientazio egokia duten etxebizitzek, hormak, sabaiak eta leihoak ongi isolatuta dituztenek (laguntza publikoak eska daitezke horretarako), aurrezte-teknologiak edo energia berriztagarriak erabiltzen dituztenek, askoz etekin handiagoa ateratzen diote aire girotuari, eta apaldu egiten dute argindarraren faktura eta ingurumen-eragina. ■

GEHIAGO JAKITEKO

www.consumer.es

Argiztapenak etxe bateko argindar-kontsumoaren erdia eraman dezake, gaizki eginez gero



Keinu txikiekin, asko aurreztu daiteke

- **Erabiltzen ez diren argiak itzali.** Oso ohitura hedatua da gela batetik irten eta argiak piztuta uztea. Alferreko argia izaten da hori, inork ez baitu erabiltzen, eta alferreko gastua ere bai. Badira salbuespen batzuk, dena den: lanpara fluoreszenteak, adibidez. Ohiko goritasun-bonbillek baino energia gutxiago gastatzen dute, baina pizteko unean kontsumitzen dute, hain zuzen, energia gehien. Hobe da fluoreszenterik ez jartzea argia maiz piztu eta itzali behar den geletan (logelak, korridoreak...).
- Ahal dela, **iluntzen duenean soilik piztu argia**, ez eguzkia sartzen hasten denean. Arratsalde bukaeran, apaldu egiten da argi naturala, baina nahikoa izaten da etxeko lan gehienak egiteko.
- **Zeregin bakoitzak eskatzen duen argiztapen-sistema hautatu.** Argigune bat baino gehiago jarri diren lekuetan, egokiena hautatu behar litzateke jarduera bakoitzerako: egongela batean irakurri egin nahi bada, ez da komeni

lanpara nagusia piztea; hobe da hurbilgoko argiren bat piztea, irakurketa eremua argituko duena. Askotan, zeharkako argiak errentagarriagoak izaten dira normalak baino; energia gutxiago kontsumitzen dute, eta argi uniforme ematen dute geletan. Badira kontsumo txikiko bonbillak, erabili ahala amortizatzen direnak.

Argi naturalari ahalik etekin gehien ateratzeko, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- **Etxe barreneko hormak kolore argiz margotzen badira** (zuriz, batez ere), argia indar handiagoarekin islatuko da horietan. Egunean zehar, eguzki-argia dagoen bitartean, argitasun gehiago izango da etxean.
- **Ispiluak modu estrategikoan jarriz gero**, egunean zehar argitasun gehiago edukitzen lagun dezake.
- **Saretak edo pertsianak ongi ireki**; geletako argiak piztea baino egokiagoa da.

